

www.gastronomiabaska.com webean sartzeko politika

www.gastronomiabaska.com web orria egitean, oso kontuan hartu dugu ahalik eta erabiltzaile gehienek erabiltzeko moduko web gunea izan behar dela, euren muga pertsonalak edo teknologikoak edonolakoak direla ere.

Horretarako, W3Cko (World Wide Webeko Partzuergoko) WAI Lantaldeak (Webaren Irisgarritasunerako Ekimenak) ezarritako Diseinu Irisgarriko Printzipio Orokorrek edo Irisgarritasun Ereduak ezarri eta bete egin ditugu.

Irisgarritasun-arazorik aurkitzen baduzu edo gai horri buruzko iruzkinik edo iradokizunik egin nahi baduzu, harremanetan jarri gurekin. e-posta:

gastronomiabaska@gastronomiabaska.com

Zer da irisgarritasuna?

Era bateko edo besteko gabeziak eduki nahiz ez eduki, edozein baliabide (weba, kutxazaina...) jende guztiarentzat eskuragarri dagoela bermatzeko artea da.

Webari buruz hitz egiten badugu, esaterako, edonori sarbidea bermatzea izango litzateke helburua, elbarritasun sensoriala, fisikoa edo teknikoa duen kontuan hartu gabe.

Zergatik da garrantzitsua web orriak irisgarriak izatea?

Pertsonak eta, batez ere, nolabaiteko elbarritasuna dutenek weba erabiltzeko zailtasunak dituzte, web orrian bertan zein bertako aplikazioetan dauden oztopo ugarien ondorioz: nabigatzaileak, multimedialako gailuak, pantaila-irakurgailuak, ahots-sintetizadoreak...

Oztopo horien ondorioz, erabiltzaileek ezin dute era guztietako informazioa eskuratu: lan-bilaketa, gizarte-jarduerak, informazio orokorra, merkataritza, hezkuntza...

Hona hemen web orriak bisitatzean erabiltzaileek aurkitzen dituzten oztopoen adibide nagusiak:

- Hautazko testurik gabeko irudiak agertzea.
- Irudien mapetan hautazko testurik ez egotea.
- Orria egituratzen duten elementuak txarto erabiltzea.
- Azaldu gabeko azpitulurik edo irudirik ez duten soinuak agertzea.
- Erabiltzaileei inolako aukerarik ez ematea, euren nabigatzaileek markoei, *skriptei* eta *apletei* eusterik ez dutenean.



- Modu linealean irakurtzean, behar bezala interpretatzen ez diren taulak egotea.
- Orriek behar den moduko kolore-kontrasterik ez edukitzea.
- etc.

Zer erabiltzailearen onurarako dira orri irisgarriak?

Elbarritasun guztiek Interneterako sarbidean eraginik ez duten arren (esate baterako, oinez ibiltzeko zailtasunak dauzkan pertsona), beste askok zailtasun handiak sortzen dituzte, ia-ia guztiok dugun elbarritasun teknikoa ahaztu gabe. Honelako erabiltzaileak daude, besteak beste:

- Ahots-itzulgailuak eta braillea bezalako gailuak dituztenak, baina soinu-txartelik edo testu-nabigatzailearik ez dutenak.
- Koloreak bereizteko zailtasunak dituztenak eta kolore bakarreko sistemak dituztenak.
- Begietako zailtasunak dituztenak eta web orriko letraren tamaina handiagotu behar dutenak.
- Epilepsia fotosentikorra dutenak.
- Nabigatzaile zaharkituak dituztenak edo oso berriak eta ezezagunegiak dituztenak edo nabigatzaileko zerbitzuak desgaitu dituztenak.
- Zailtasun motorrak dituztenak eta mugimenduan dauden objektuekin elkarreraginean egoteko gaitasunik ez dutenak.
- Sagua ez beste gailu bat dutenak.
- Zailtasun kognitiboak dituztenak.

Oro har, guztion onerako da orri irisgarriak izatea, erraz erabiltzen direlako eta inolako arazorik sorrarazten ez dutelako.

Nor dira W3C eta WAI?

World Wide Web Consortium organismo neutrala da, Internet zein bere estandarrak behar bezala garatzen direla bermatzen du eta Irisgarritasunaren inguruko Lantaldea sortu du, WAI, alegia.

1999ko maiatzean, talde horrek Web Edukien Irisgarritasunerako Jarraibideak argitaratu zituen, hau da, honako informazio hau eskaintzen duen dokumentazio bikaina: 3 irisgarritasun-mailak betetzeko irisgarritasun-zuzentarauak, zuzentarauek edukiak aztertzeke zerrendak eta zuzentarauek betetzeko teknikak.



Zer dira irisgarritasun-ereduak?

Zuzentarau horiek 14 eredu orokorretan daude oinarrituta (gero, 65 puntutan azpibanatzen dira), eta diseinu irisgarria egiteko printzipio orokorrak dira.

Eredu horiek web orrien diseinugileentzat dira, hau da, web guneak egiztatu eta bertako irisgarritasuna baieztatzen duten pertsonentzat, euren web orria irisgarria izatea nahi duten erakundeentzat edo elbarriei euren web orriko informazioa eskuratzeko aukera eman nahi dieten erakundeentzat.

Zenbat irisgarritasun-maila daude?

Hona hemen hiru irisgarritasun-mailak:

- A maila (1. lehentasuna): garatzaileak egiaztapen-puntu hauek bete beharko ditu. Bestela, zenbait pertsona ez dira web gune bateko informazioa eskuratzeko gai izango.
- AA maila (2. lehentasuna): garatzaileak puntu hauek bete beharko ditu. Bestela, norbaitek informazioa eskuratzeko zailtasun handiak edukiko ditu.
- AAA maila (3. lehentasuna): garatzaileak puntu hauek bete ahal izango ditu. Bestela, pertsona batzuek informazioa eskuratzeko zailtasunak edukiko dituzte.